

Helburu didaktikoak (Oreretatuak)	Ebaluazio adierazleak (Oreretatuak)
<p>1. Behaketan eta galdera gidatuetan oinarrituta, zenbakien ezaugarriak arakatu eta ziurtatu, eta horrez gain, zenbaki horiek matematikaz gaindiko alorretan egindako ekarpena adierazi eta haren baliagarritasuna balioetsi.</p>	<p>1. Eguneroko bizitzako egoeretan zenbakien bidez adieraz daitezkeen erlazioak arakatu ditu, neurrien arteko proportzioak aztertu ditu eta proportzio horien ezaugarriak bereizi ditu.</p> <p>2. Zenbaki motak modu egokian identifikatu, sailkatu eta izendatu ditu.</p>
<p>2. Berreketa eta erroketa alderantzizko eragiketa gisa erlazionatu eta haiekin eragiketak egin, adierazpenak eraldatu.</p>	<p>3. Berreketen propietateak adierazpen konplexuak sinplifikatzeko erabiltzen ditu.</p> <p>4. Idazkera zientifikoko arauak zuzen aplikatzen ditu eta zenbaki oso handiak eta txikiak idazteko erabiltzen ditu. Notazio zientifikoan adierazitako zenbakien arteko eragiketa sinpleak zuzen burutzen ditu.</p> <p>5. Erroketa-berreketa eragiketak definizioaren bitartez eraldatzen ditu.</p> <p>6. Erroen arteko eragiketa sinpleak kalkulatu ditu: batuketa, kenketa, biderketa, zatiketa, berreketa eta erroketa.</p> <p>7. Era guztietako emaitzak sinplifikatu ditu.</p>
<p>3. Arrazoiketa matematikoaz baliatuz, segiden ezaugarriak identifikatu eta haien adierazpen aljebraikoak idatzi, eta, alderantziz, segiden adierazpen aljebraikoak eraldatu informazio berria sortu.</p>	<p>8. Segidaren adierazpenak eraldatu ditu (testua/gaiez gai/gai orokorra), haiekin eragiketak egiten ditu eta joerari dagokionez sailkatzen ditu.</p> <p>9. Progresio aritmetikoen eta geometrikoen formulez baliatzen da informazio berria erdiesteko eta problemak ebazteko.</p> <p>10. Ekonomiarekin erlazionatutako problemak ebazteko: interes sinplea eta konposatua.</p> <p>11. Hizkuntza eta sinbologia matematikoa zuzen erabili ditu.</p>